LAN- ETA
GIZARTE-GAIETARAKO
MINISTERIOA

INEM
ENPLEGU-INSTITUTUA
ESTATUKO ENPLEGU-
-ZERBITZU PUBLIKOA

# LAN-ENKLABEETATIK DATORREN MUGAGABEKO LAN-KONTRATUA MINUSBALIATUENTZAT

**EUROPAKO BATASUNA**

EUROPAKO GIZARTE-FUNTSA

KONTRATU-KODEA

| | |
|---|---|
| ☐ LANALDI OSOA | 1 3 0 |
| ☐ LANALDI LABURRA | 2 3 0 |
| ☐ JARRAITUTASUNIK GABEKO FINKOA | 3 3 0 |

**ENPRESAREN DATUAK**

IFK/IFZ/AIZ

| | | |
|---|---|---|
| JN./AND. | IFZ/AIZ | KARGUA: (1) |
| ENPRESAREN IZENA | ENPRESAREN HELBIDEA | |
| HERRIALDEA | UDALERRIA | POSTA-KOD. |

**KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ERREGIMENA | PROB. KOD. | ZENBAKIA | KONTROL-DIGITUA | JARDUERA EKONOMIKOA |

**LANTOKIAREN DATUAK**

| | |
|---|---|
| HERRIALDEA | UDALERRIA |

**LANGILEAREN DATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| JN./AND. | IFZ/AIZ | JAIOTEGUNA |
| G.S.KO AFILIAZIO-ZENBAKIA | IKASKETA-MAILA | NAZIONALITATEA |
| BIZILEKUAREN UDALERRIA | BIZILEKUAREN HERRIALDEA | |

Dagokionean, ........................................................................................................ jaunaren/andrearen legezko laguntzaz, –.......................................... du IFZ/AIZ–, .............................................................................................................. izanik (2).

## AITORTZEN DUTE

Enklabeko langilea minusbaliatua dela, (3) ..........................................................................................(e)k emandako ziurtagiriak erakusten duenez. ...................................................................................(e)ko minusbaliotasun-maila aitortu diotela, eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun berezia duela, eta atal honetan sartzen dela (9):

☐ a) Garun-paralisia duten pertsonak, buruko gaitzen bat dutenak edo adimen-minusbaliotasunen bat dutenak, baldin eta % 33ko minusbaliotasun-maila edo handiagoa aitortuta badute.
☐ b) Minusbaliotasun fisikoa edo sentsoriala duten pertsonak, baldin eta % 65eko minusbaliotasun-maila edo handiagoa aitortuta badute.
☐ c) % 33ko minusbaliotasun-maila edo handiagoa aitortuta duten langile minusbaliatuak.

Lan-kontratu hau sinatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta, ondorioz, horrela gauzatzea erabaki dutela:

## KLAUSULAK

LEHENENGOA: Kontratatutako langileak (4) ...................................................... gisa egingo du lan, (5)........................................ talde/kategoria/maila profesionalean, enpresan indarrean dagoen sailkapen profesionalaren arabera.

BIGARRENA: Kontratua jarraitutasunik gabeko denboraldiko lan finkoak egiteko adosten bada, (6) ........................................ gisa jardungo du, (7) ........................................ aldizkako jarduera ziklikoen barruan, eta iraupena (7) ........................................ izango da. Jardueraren gutxi gorabeherako iraupena (8) ........................................ izango da. Langileei ........................................-(e)ko hitzarmen kolektiboak xedatzen duen ordenan eta eran deituko zaie lanerako. Jarduera-aldiko lanaldia astean ........................ ordukoa izango da, eta lan-ordutegia honako hau izango da: ..........................................................................................

HIRUGARRENA: Lanaldia hau izango da (9):

☐ **Lanaldi osoa:** Lanaldia asteko ........................................ ordukoa izango da, ........................................(e)tatik ........................................(e)tara, legeak ezarritako atsedenaldiekin.
☐ **Lanaldi laburra:** lanaldi arrunta ☐ egunean, ☐ astean, ☐ hilean, ☐ urtean ........................ ordukoa izango da. Lanaldi arruntak honako hauek baino laburragoa izan behar du (10):
  ☐ Aldera daitekeen lanaldi osoko langile batena baino laburragoa.
  ☐ Aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako lanaldi osoa baino laburragoa.
  ☐ Gehienezko legezko lanaldia baino laburragoa.
  Lanaldia ................................... ordukoa da (10).
  Halaber, ordu osagarriak egitea hitzartu da eta kontratu honen eranskin gisa dago jasota (11). BAI ☐ EZ ☐
  Lanaldian honela banatuko da denbora: ..........................................................................................

LAUGARRENA: Kontratu honen iraupena mugagabea izango da. Lan-harremana ........................................ datan hasiko da eta ………........................................ ………........................................-(e)ko (12) probaldia egongo da.

BOSGARRENA: Langileak (13) ........................................ euro gordineko ordainsaria jasoko du, honako ordainsari-kontzeptu hauetan banatuta (14): ..........................................................................................

PE-205 Aur. ered.

**Existe este mismo modelo en castellano**

SEIGARRENA: Urteko oporren iraupena (15) ...............................................................................................(e)koa izango da.

ZAZPIGARRENA: Kontratu hau txandakako kontratu gisa egin da: BAI ☐ EZ ☐. Erantzuna baiezkoa bada, «Txandakako kontratuak» eranskina bete behar da.

ZORTZIGARRENA: a) eta b) ataletan sartzen diren langileei egindako kontratuen kasuan, lanaldi osoko kontratua egiten bada, enpresak 7.814 euroko diru-laguntza eskatzen du, bai eta Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotetan % 100eko hobaria ere, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalaren hobariak eta bilketa bateratuko kuotak barne, kontratua indarrean dagoen bitartean.
a) eta b) ataletan sartzen diren langileei egindako kontratuen kasuan, lanaldi laburreko kontratua egiten bada, enpresak ......................................................................... euroko (16) diru-laguntza eskatzen du, bai eta Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotetan % 100eko hobaria ere, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalaren hobariak eta bilketa bateratuko kuotak barne, kontratua indarrean dagoen bitartean.
c) atalean sartzen diren langileei egindako kontratuen kasuan, lanaldi osoko kontratua egiten bada, enpresak 3.907 euroko diru-laguntza eskatzen du, bai eta Gizarte Segurantzako enpresa-kuotaren hobaria ere, langilearen adinaren araberakoa (X jarri dagokionari).
- 45 urte baino gutxiago: ☐ % 70, gizonezko langile minusbaliatua
☐ % 90, emakumezko langile minusbaliatua
- 45 urte edo gehiago: ☐ % 90, gizonezko langile minusbaliatua
☐ % 100, emakumezko langile minusbaliatua
c) atalean sartzen diren langileei egindako kontratuen kasuan, lanaldi laburreko kontratua edo jarraitutasunik gabeko kontratu finkoa egiten bada, enpresak ........................................ (17) euroko diru-laguntza eskatzen du, bai eta Gizarte Segurantzako enpresa-kuotaren hobaria ere, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalaren hobaria eta bilketa bateratuko kuotak barne, langilearen adinaren arabera (X jarri dagokionari).
- 45 urte baino gutxiago: ☐ % 70, gizonezko langile minusbaliatua
☐ % 90, emakumezko langile minusbaliatua
- 45 urte edo gehiago: ☐ % 90, gizonezko langile minusbaliatua
☐ % 100, emakumezko langile minusbaliatua

BEDERATZIGARRENA: Enpresak langilearen lanpostuaren egonkortasunari eusteko konpromisoa hartzen du –maiatzaren 11ko 1451/1983 EDaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatu du–.

HAMARGARRENA: Kontratu honi uztailaren 9ko 12/2001 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarria (uztailaren 10eko BOE) aplikatuko zaio: ☐ BAI ☐ EZ

HAMAIKAGARRENA: Aurreko klausulan erantzuna baiezkoa izan baldin bada, kontratua arrazoi objektiboengatik iraungitzen denean eta iraungipena bidegabetzat jotzen denean, Langileen Estatutuko 53.5. artikuluak adierazten duen kalte-ordaina, lege-testu bereko 56. artikuluak xedatzen dituen efektuei jarraituz, zerbitzu-urte bakoitzeko 33 eguneko ordainsaria izango da. Urte bat baino gutxiagoko iraupena duten aldietan hileko hainbanatuko da eta gehienez 24 hileroko izango dira.

HAMABIGARRENA: Kontratu honetan aurreikusten ez denerako, aldeek indarrean dagoen legedia betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta, zehazki, hauek betetzeko konpromisoa: otsailaren 20ko 290/2004 EDa (otsailaren 21eko BOE), urtarrilaren 30eko 170/2004 EDak aldatutako (urtarrilaren 31ko BOE) maiatzaren 11ko 1451/1983 EDa (ekainaren 4ko BOE) eta abenduaren 12ko 45/2002 Legearen Bosgarren xedapen gehigarriaren laugarren atala. Era berean, ...................................................................................................................-(e)ko Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa ere aplikatuko zaio.

HAMAHIRUGARRENA: Kontratu honen edukia ................................................................................................................. Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraziko zaio, sinatu eta 10 eguneko epean (18).

## KLAUSULA GEHIGARRIAK

Eta jasota gera dadin, honen hiru ale egin dira ondoren adierazitako tokian eta datan, eta alde interesatuek sinatu dituzte.

........................................................................(e)n, 20..........(e)ko ...............................................aren ...................(e)an

Langilea | Enpresaren ordezkaria | Dagokionean, adin txikikoaren legezko ordezkaria

**(1)** Zuzendaria, kudeatzailea, etab.
(2) Aita, ama, tutorea edo bere kargua duen pertsona edo erakundea.
(3) Ziurtagiria egin duen erakunde ofizialaren izena jarri.
(4) Lanbidea adierazi.
(5) Lanbideak sailkatzeko enpresan indarrean dagoen sistemaren arabera dagokion talde profesionala eta kategoria edo maila adierazi.
(6) Langileak egin behar duen jarduera adierazi.
(7) Enpresaren jarraitutasunik gabeko edo denboraldiko jarduera eta horren iraupena adierazi.
(8) Langileak egin behar duen jardueraren iraupena adierazi.
(9) Dagokion lekuan X jarri.
(10) Aukeratu hiru egoeratatik zein dagokion, eta X jarri. Lanaldi osoari dagokion ordu-kopurua ipini.
(11) Ezabatu dagokiona, eta, baiezkoa erantzunez gero, ordu osagarriei buruzko eranskina gehitu.
(12) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratuaren 14.1 artikuluan ezarritakoa errespetatuz,langileak enklabeko jarduеretatik asko aldentzen diren funtzioak bete behar baditu bakarrik ezarri ahal izango da probaldia.
(13) Eguneko, asteko, hileko edo urteko.
(14) Oinarrizko ordainsaria eta ordainsari-osagarriak.
(15) Gutxienekoa: 30 egun natural.
(16) Diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi. Beherapena 7.814 euroko kopuruarekiko proportzionala izango da, hitzartutako lanaldiaren arabera.
(17) Diru-laguntzaren zenbatekoa adierazi. Beherapena 3.907 euroko kopuruarekiko proportzionala izango da, hitzartutako lanaldiaren arabera.
(18) DATUEN BABESA.- Eredu honetan jasotako datuek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesa izango dute. (Abenduaren 14ko BOE).

PE-205 Atz. ered.